

Euskararen azken urteotako ibilbidea administrazioan eta arlo juridikoan.

Euskara, Euskal Herriko hizkuntza da, soilik eremu honetan mintzatzen da eta hori dela eta, Euskal Herriko kulturaren elementu adierazleetakoa bat da.

Hizkuntza isolatu bat da, erromatarren aurreko hizkuntza bakarra, eta, euskaldunak gara hau ulertzen eta hitz egiten dugun bakarrak, hala ere, antzina Errioxa, Kantabrian, Burgosen, Huescan, Zaragozan, Akitanian eta Erdialdeko Pirinioetara zabaltzen zela frogatu da.

Hala ere, historiaren eboluzioa eta gizartearen aldaketak zirela medio, oso gutxitze-prozesu gogorra jasan zuen, eta etenik gabe lurraldeak eta hiztunak galduz joan da, nahiz eta, garai latzetan ere beti egon diren euskara biziberritzen saiatu direnak, hala nola Sabino Arana. Azken honek, abertzaletasuna sustatu eta gizarte euskaldunari independentziaren aldeko nahia piztekotan Eusko Alderdi Jeltzalea sortu zuen.

Euskararen kontrako garai latzena Frankismoan izan zen (1936-1977), garai horretan euskaraz hitz egitea, izen euskaldunak... debekatu ziren; baita euskararekin edo Euskal Herriarekin esanahia eduki zezakeen edozein mugimendu, hitz, edo janzkera ere. Hori dela eta, urte horietan jaiotakoak, euskaraz adierazteko edo ikasteko zailtasun asko eduki zituzten eta askok ez zuten ikasteko aukera izan ezta ere.

Hala ere, azkeneko urteetan, euskarak izan duen bilakaera nabarmena izan dela ukaezina da, izan ere, 1980ko hamarkadatik aurrera, euskarak erakunde onarpenera lortu zuen eta horretaz gain, Gernikako Estatuak euskara Euskadiren berezko hizkuntza izendatu zuen, gaztelaniarekin batera ofiziala eginez Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan. Nafarroaren kasua bereziagoa izan da, izan ere, Euskararen Legearen eraginez herrialdeko ipar-mendebaldean, “eremu euskalduna” deritzen horretan, koofiziala egin zuten, erdialdea, eremu mistotzat jo zuten, eta hegoaldean, eremu ez-euskalduna den heinean, ez zuten euskara hizkuntza ofizial bezala onartu.

Gauzak horrela, eta gertakari historikoen ondorioz, eremu euskaldunetan, hiritarrak modu desberdinetan hitz egiten zuten, leku bakoitzean izandako gertaeren eraginaren ondorioz. Hori dela eta, euskalkien dakartzaten ulermen arazoak gainditzeko eta hainbat alorretan hizkuntza arautu baten beharrari erantzuteko (hala nola, administrazioa, arlo juridikoa...) Euskara Batua sortu zen, euskararen euskarri arautua.

Geroztik, euskararen hedapena lortzeko prozesua zabaldu egin da. Gaur egun, euskaraz ikastea edozeinen esku egoteaz gain, Eusko Jaurlaritzak laguntzak eskaintzen ditu euskara ikasteko eta euskararen erabilera sustatzeko. Eskoletan euskaraz ikastea derrigorrezkoa da eta erakunde askotan hizkuntza ofizial bezala aitortu den heinean, informazioa bi hizkuntzetan eskaini behar dute, edozeinek ulerti ahal izateko moduan.

Garapena egon dela ukaezina den arren, alorraren arabera garapen horren maila ezberdina da. Izan ere, gaur egungo gizartearen euskararen erabilera murrizten ari dela esan behar dugu, eskainitako aukerak eta izaten duten eraginkortasunaren arteko alderaketa eginez gero, behintzat.

Antzina euskararen erabilera sustatu eta debekuen alde borrokatu zuten bezala, gaur egun, askok, euskara soilik “derrigortzen gaituztelako” hitz egiten dute, ez ordea benetan sentitu eta euren lurraldeko hizkuntza dela sentitzen

dutelako. Hala ere, gaur egungo hizkuntza euskaraz izatea aurrerapauso garrantzitsuenetakoa da, izan ere, denek izango dute euskaraz ikasteko eskubidea eta horrekin aukera ematen zaie familia erdalduna dutenei euskaraz ikasteko eta jarduteko ere. Gizartean euskaraz hitz egiteko ohitura gutxiago egon arren, hitz egiteko dauzkagun baliabideak nabarmenki aregotu dira, izan ere, gaur egun denda batean sartu eta euskaraz hitz egiteko aukera eskaintzen zaigu, teoriarik behintzat.

Arlo juridikoan ere gauzak asko aldatu direla onartu behar da, euskararen normalizazioa eman zenetik, hala ere, arlo honetan gauzak beti poliki doazela argi dago, eta hortaz gutxieneko hizkuntza bati dagokionez, oraindik ere polikiago doazela aitortu behar da.

Hori dela eta, nahiz eta gutxika-gutxika euskarari ateak irekitzen ari zaizkion arlo juridikoan, oraindik ere prozesu luze bat geratzen dela onartu behar dugu, izan ere, arlo honetako liburuak, sententziak, doktrinak... gazteleraz daude beti; eta oso zaila da euskaraz idatzitako liburu bat aurkitzea eta are gehiago itzulpenak ondo eginak egotea. Hala ere, idazle euskaldun batzuek egiten duten lana eskertu behar dela aitortu behar dugu, liburu gutxi egon arren, behintzat daudelako, eta hori orain dela 40 urte ezinezkoa zirudielako.

Zuzenbidearen euskaratze prozesuaren beste alderdietako bat, etengabeko aldaketak dira, izan ere, legeak, aginduak, erregelamenduak etengabe aldatzen dira eta hori dela eta, askok, zerbait euskaratzea atzerapen bat dela diote, galtzen den denbora eta diruarengatik batetik, eta "lex posterior derogat priori" printzipioarengatik bestetik. Hala ere, eztabaida honen inguruan, nire ustez atzerapen bat ematen dela argudiatzea benetako atzerapena dakar, izan ere, hizkuntza baten normalizazioa lortu eta gero, eta hizkuntza ofizialaren maila ematea lortu eta gero, edozein arlotan honen garapena mugatzea kontraesan bat izateaz gain, atzerapen bat dela uste dut nik behintzat.

Arlo juridikoari dagokionez, asko dira proposatu diren erreformak euskararen benetako ofizialtasuna lortzeko ere sektore honetan, nahiz eta askotan planteamendu hutsean geratzen diren. Batetik, epaile, magistratu eta abokatuen prestakuntza euskaraz eskaintzea aurrerapauso garrantzitsua da, baina ordea, lan arloan euskaraz aritzeko gaitasuna izatea benetako aurrerapena da. Honekin batera, hizkuntza zainduaren reforma dator, betidanik arlo juridikoa hizkuntza zaindu bat izan duelako eta horrek askotan hiritarrak ulertzeko zailtasunak izatea suposatzen du. Hori dela eta, eta zailtasun hau gainditzeko, hizkuntza hiritarren gaitasunera moldatu nahi da ere, bai euskaraz eta bai gazteleraz ere.

Jakina denez, administrazioan, arlo juridikoan bezala, gauzak ere oso poliki doaz, nahiz eta justizia baino azkarragoa dela aitortu behar dugun; eta hortaz, euskararen erabilerean sustapena ere, poliki doan prozesu bat den. Arlo honetan, euskararen erabilera bultzatzen duen gertaera nagusia, 1997ko apirilaren 15ean emandako dekretua da, zeinaren bidez, Euskal Autonomi Erkidegoko Administrazioetan euskararen erabilera normalizatu eta bultzatzen baita. Dekretu honetan, euskara bultzatzeko baliagarriak izan daitezkeen jarduera batzuk sustatzen dira, hala nola, administrazioan lanpostu bat izateko beharrezkoa den euskara maila arautzen da. Azken hau, lanpostu hori beteko duten pertsonak gutxieneko euskara maila bat izango dutela ziurtatzeko balio du, administrazioa laguntza eskatzera edo gestio bat burutzera doan edozein pertsonari euskaraz mintzatzeko aukera bermatzeko.

Aipatu dugun moduan, euskararen erabilera bultzatzen duen arau berria 1997koa da, hori dela eta, euskararen sustapena azkenaldiko gauza bat dela ulertu behar da, honek dakartzan arazoa, aurretik zeuden langileekin sortzen da, izan ere, askok ez dute gaur egun eskatzen den euskara maila betetzen, baino ordea, kontratatuak izan ziren garaian ez zenez betekizun hori eskatzen, ez litzateke konstituzionala izango hauek kaleratzea. Hori dela eta, eta beste arau batzuk direla medio, adibidez, euskaratutako testuen ziurtasun falta, oraindik ere, administrazioan euskaraz jarduteko oraindik ere arazo asko daude.

Azkenik, nire ustez, oraindik ere benetako normalizazioa lortzeko lan asko egin behar dugula uste dut, nahiz eta horrek ez du esan nahi orain arte egindako guztia baloratu egin behar ez denik. Ziur asko, orain dela 20 urte zuzenbide ikasi zutenek ez zuten sekula imajinatuko, etorkizunean, lizentziatura euskaraz ikasteko aukera egongo zenik edo, Zigor Kodea, Kode Zibila.... euskaraz kontsultatu eta erosteko aukera izango genuenik. Hortaz, egindako aurrerapen guztiak baloratu egin behar direla uste dut.

Hala ere, oraindik ere lana daukagu, izan ere, askotan bai arlo juridikoan edo administratiboan euskaraz mintzatzeko trabak jartzen dizkigute eta hori, euskara gaztelaniaren azpitik uztea suposatzen du. Honekin batera, lanpostuak eskuratzeko orduan euskara maila eskatzea egokia iruditzen zait, horrela pertsona batek, nahiz bere ohiko bizitzan hizkuntza hori ez hitz egin, ulertzen duela eta erantzuteko gai dela ziurtatu dezakegu.

Edozein modutan eta aurrerapenak aurrerapen, euskararen benetako normalizazioa oraindik ere oso urruti dagoela uste dut; aurrerapauso asko egin diren arren, oraindik ere asko dira egin behar ditugunak euskara benetako hizkuntza ofizial bat dela sentitu ahal izateko. Horien artean, euskaraz hitz egiteko baimena eskatu behar ez izatea dugu helburuetako bat. Hau da, euskara Euskal Herrian hizkuntza ofiziala den heinean, hau edozein arloan edo lekutan hitz egiteko ahalmena edo eskubidea eduki behar dugu, eta nahiz eta gutxika gutxika hori bermatu ahal izateko aurrerapenak egiten ari diren, uste dut benetako ofizialtasun bat sentitu ahal izateko automatikoa egin beharko litzatekeela. Honekin, euskaratze prozesuan parte hartu duten eta parte hartzen duten guztiei, euskaldunengatik egindako lana eskertu behar diogun arren, nire ustez administrazioan, eskoletan, epaitegietan... euskaraz hitz egiteko aukera bermatzen digutenean, ez dira mesede bat egiten ari, baizik eta eskubide bat bermatzen ari dira.

Gauzak horrela, erderaz jarduten dugunean eskerrak ematen ez ditugun moduan, ohikoa dela uste dugulako, euskaraz jardutean sentsazio bera izatea lortu behar dugu. Azken finean, hizkuntza baten normalizazioa lortzea, hizkuntza hori hitz egiten duten pertsonen esku dago, gu gara hizkuntza honen garapenean parte hartu behar dugunak eta gu gara eskeintzen dizkiguten baliabideak aprobetxatu behar ditugunak ere. Ohikotasunez jardun behar gara, ohikoa dela ikusi ahal izateko.

Maria Nuñez.